

SEXU ARTEKO DESBERDINKETA HAURREN IRUDIETAN

Lore Erriondo

Zorroagako Lan-Taldea

Honako artikulu honetan, haurrek egindako irudietan sexuen arteko desberdinketa nola ematen den aztertzen saiatuko gara. Azterketa honen bitartez, gure ustetan, irudiek barneratuak dituzten estereotipo, funtzio eta paperak ikusi ahal izango ditugu. Horretarako, O.H.O.ko 3., 6. eta 8. mailako haurrek 1986-87 ikasturtean egindako irudiak jaso eta aztertu genituen. Hiru marrazki desberdin jaso genituen haur bakoitzagandik. Hona hemen: etxekoen marrazkia, jolas baten marrazkia eta autorretratua. Irudi hauen azterketaren ondoren, sexuen arteko diskriminazioa benetan gertatzen dela esan dezakegu.

U.E.U.ko Pedagogia Sailean Zorroagako Lan-Taldeak 1986-87 ikasturtean egin zituen azterketekin jarraituz, honako honetan, haurrek egindako irudietan sexu arteko desberdinketa nola ematen den ikusteko egin zen lana aurkeztu nahi genizueke.

Lan honen helburuetariko bat, neska-mutilek bizi duten sexuagatiko diskriminazioaren inguruan errealitate soziala nolakoa den aztertzea da, bai eta errealitate horrek beraiengan duen eragina ere.

Neska-mutilak, gizarte "normalizatu" honetan bakoitzari dagokion funtzio eta paperez jabetuz joango dira; gizarte honetan ezarriak dauden emakume eta gizonezkoen ohizko estereotipoak pixkanaka-pixkanaka barneratuko dituzte alegia.

Aurre-ezarritako prozesu honetan, badakigu eskola ez dela aldagai bakarra, beraien etxeko, kaleko,.. inguruneak ere indar handia izango bait du, baina horrek ez du esan nahi eskolak ez duenik inolako eraginik eta are gutxiago, bertatik ezin denik lanik bideratu.

Hala eta guztiz ere, egungo eskola gehienak, eguneroko lanean murgildurik daude eta bertan ezjakinasunagatik ez da lantzen edo onenean azaletik eta puntualki besterik ez da lantzen hain korapilotsua den sexu-diskriminazioa. Dinamika honen bidez, ingurunearen eragina indartu eta aurrez ezarritako estereotipoak bultzatzea besterik ez du lortzen.

Geletan sexismoaren presentzia ukaezinezkoa da eta haurrek eguneroko lanetan egindako marrazkiak behatuko bagenu, rol sexualen banaketa oso goiz gertatzen dela baieztatuko genuke; haurrak bost urte ditueneko, jabetze-prozesua finkatzen hasia dago hain zuzen ere. Neska edo mutil identifikazio goiztiar honen arabera, norberak bere buruarentzat egokientzat hartzen dituen aktibitate eta portaerak erabakiko ditu; jostea edo burukatzea, galtzak edo gonak jaztea, ile luzea edo motza eramatea etab. alegia.

Gure gizartean gertatzen den sexu arteko desberdinketa azaldu eta baieztatzea gure helburua denez, O.H.O.ko 3., 6. eta 8. mailetan, ikasturte honetan haurrek egindako irudiez baliatuko gara.

Lan honetan erabilitako lagina txikia bada ere (569), ondorengo azterketak planteiatzerakoan hipotesi zehatzagoak formulatu ahal izateko baliagarria gertatuko zaigulakoan gaude.

Datu-bilketa

Hasteko, adierazi beharra dago lan honetan bildutako datuak irudien bidez jaso ditugula eta ikasleari irudi hauek egitea agindu zaionean, modu desberdinetara egin da; hala nola:

- Marraz itzazu zeure etxekoak.
- Marraz ezau irudimenezko familia bat.

• Arau honekin eta honekin zure familiakoak marraz itzazu

•...

Garbi dago era honetako datu-bilketak egiterakoan, agindu desberdinak eman daitezkeela eta ondorioz jasoko ditugun datuak ere, desberdinak izango direla. Nahiz eta seguruenik adibide honetan irudimenezko familia eta beraien etxekoa antzekoak izan, beraiek barneratuta dituzten jokamoldeak adibide gehienetan errealak izango dira eta beraien ingurune hurbiletik jasoak ere bai. Beraz, datuen fidagarritasuna gehitzeko, guztientzako berdina izango zen modu bat erabaki beharrean geunden. Gure lanak helburu zehatzak zituenez, lehen aipatutako hirugarren agindua iruditu zitzaigun egokiena (arau honekin eta honekin zure familiakoak marraz itzazu).

Agindu hauen bitartez, hiru marrazki jaso genituen haur bakoitzarengandik:

- a) Etxekoen marrazkia
- b) Jolas baten marrazkia
- d) Autorretratua

Hauetako marrazki bakoitza burutzeko agindu zehatzak eman genizkien, eta hauen azalpena lan bakoitzaren hasieran dago.

Etxekoen marrazkia

Lan honetan, neska-mutil bakoitzak berarekin etxean bizi direnen deskriba-

pena burutu behar zuen marrazkiaren bidez. Honen helburua, etxeko partaide bakoitzak betetzen duen funtzio eta rolari buruzko ikuspegia jasotzea zen.

Honako hau izan zen marrazkia burutzeko eman zitzaien agindua: «Zure familiakoan marrazkia egin ezazu; etxean denok zaudetenean nahi duzun egoera aukeratuaz eta egoera horretan kide bakoitzaren ekintza azalduz»

3. Mailakoen marrazkiak

Marrazki hauek aztertuz gero, zera esan daiteke: neskek eta mutilek egindako marrazkien artean ez dago inolako desberdintasunik, marrazki horietako pertsona bakoitzaren funtzioari dagokionean; adibide bietan honelako egoeratan errepresentatzen bait dituzte:

AITA: telebista ikusten, irakurtzen, konponketak egiten eta %8tan besterik ez sukaldean edo etxeko lanetan.

AMA: Ez dirudi harremanetako partaide denik, bere funtzioa etxeko lanetara mugatzen bait da; sukaldeko tresnak garbitu, janaria prestatu, etxeko garbiketak eta antzekoak alegia.

NESKA-MUTIL MARRAZKILARIA ETA ANAI-ARREBEN EGITEKOA:

Alor honetan, irakurketa eta eskolako lanetan agertzen dira nagusiki (%40 eta %21,2 portzentaiak dagozkielarik hain zuzen ere). Betekizun hauetatik at, jolasak ere

badu bere presentzia minimoa (norberaren betekizunetan %10,9 eta neba-arreben kasuan %36,1). Adierazgarria gerta daiteke norberaren burua margotzerakoan, ekintza "formalei" (ikasteari, etxeko lanak egiteari, ...) anai-arrebak marrazten dituztenean baino garrantzi handiagoa ematea. Hala ere, egonean egotearen¹ aktibitateak ere badu garrantzia (%14,2 eta %21,2).

Nahiz eta gaiaren aritik irten, haurren marrazki hauek behatzerakoan, jasaten ari diren giza aldaketa soma daitekeelakoan gaude; jolasean eta aktibitate sozial eta partehartzeak haurren presentzia galtzen ari dela alegia eta indartzen aldiz, ikaste eta egote pasiboak. Honek, neska-mutilen arteko jolasak suposatzen dituen harreman-balioa galtzeko arriskutan jartzen du eta sexu desberdinen arteko interakzioa gutxitzen.

6. Mailako marrazkiak

Maila honetan ere gurasoei dagokienez, 3. mailan azaltzen den banaketa berdina azpimarra daiteke; alegia, ama gehienak sukaldean eta etxeko lanetan azaltzen direla eta aldiz aitak, %7an bakarrik sukaldeko lanetan.

Etxeko lanak aipatzerakoan, gizonetzkoek eta emakumezkoek betetzen dituzten lanak desberdinak direla azpimarratu behar dugu; emakumezkoak garbiketa-lanetara mugatzen diren moduan, gizonetzkoak konponketa-lanetan aritzen dira.

Aurreko marrazkiekin konparatuz, aipatu beharrekoa dugu 6. mailako marrazki hauetan emakumeak beste senideekin batera hitzegiten edo egonean gehiagotan azaltzen direla: %26,3an alegia. Hau dela eta, agian kontutan hartzeko litzateke 10-11 urteko haurrentzat, senitar-teko harremanek garrantzi handia dutela.

Norberaren eta anai-arreben arteko jolasek, 3. mailan baino presentzia handiagoa dute (%28,1 eta %48,2), baina adierazi behar da jolasaren zentzua ezberdina dela, zeren eta maila honetako marrazkietan, kirol eta kirol-txapelketekin lotuta bait dago.

Bestalde, eskolako lan eta irakurketen presentzia murriztu egiten da eta egote pasiboarena handiagotu.

Etxeko lanei dagokienez, ez da neska-mutilen arteko desberdintasun nabarmenik agertzen, etxeko lan hauen presentzia handiegia ez bada ere.

8. Mailako marrazkiak

Maila honetako norabide orokorra beste mailetan azaltzen denaren antzekoa bada ere, zenbait gauza azpimarratu nahi genituzke.

6. mailakoen deskribapena azaltzerakoan esaten genuen bezala, emakumezkoak hitzegiten edo egonean %26,3an azaltzen ziren eta maila honetan aldiz, portzentaia hau %37,8ra gehitzen da. Honen arrazoiatariko bat

gure ustez, 6. mailakoa bera izan daiteke; hau da, adin honetan harremanek duten garrantzia.

Norbera eta anai-arrebei dago-kienez, irakurketa, etxeko lanak etab. 6. eta 8. mailetan bezala mantentzen badira ere, norberaren jolasaren presentzia portzentaia handian jaisten da: %28,1etik, %11,2ra, eta neskek bakarrik konparatzen baditugu, %25etik %4,6ra. Telebista aurrean agertzen diren irudiak hartzen baditugu aldiz, %40,3ra igotzen dira. Anai-arrebenak aztertzerakoan antzerako gertatzen bada ere, ezaugarri zehatz hauetan aldea txikiagoa dela esan dezakegu.

Etxeko marrazkiei buruzko ondorio orokorrak

- Familia batetan eman ohi diren funtzioak ongi barneratuta dituzte, nahiz eta agian bakoitzaren errealitatea horrelakoa ez izan.
- Ez dago neska eta mutilen arteko, marrazkiei begiratu, funtsezko desberdintasunik.
- Adinez nagusitzen doazen neurrian, egonean egoteak, telebistak eta etxekoen arteko harremanak garrantzi handiagoa hartzen dute; aldiz jolasak, irakurketak etab.ek, presentzia galtzen dute.
- Etxeko lanetan ere bada desberdintasunik emakume eta gizonezkoen artean.
- 6. mailatik aurrera, etxeko jolasaren presentzia galdu egiten da.

Jolasen marrazkiak

Atal honen helburu nagusia, neska eta mutilen artean jolasekiko egon daitezken desberdintasun orokor eta nagusiak jasotzea da.

Honako hau izan zen marrazkia egin aurretik jasotako agindua: «Egin ezazu marrazki bat, zuri gehien gustatzen zaizun jolasean jolasten ari zarela».

Jolasen taulan begiratzen badugu 3. mailakoetan ez da gehiegi nabarmentzen eskolatik kanpoko kirolen eragina. 6. eta 8. mailetako ekintzak aldiz askoz ere lotuagoak daude kirol eta aktibitate hauekin.

3. Mailako jolasak

Jolasak	A	B	D	Futbola
Neska	%45,16	%48,3	%6,4	0
Mutila	%9	0	%13,6	%77,2

- A:** EREMU ZABALEKO JOLASAK: zapiekin, patinak, soinketa, elur-pelotak, pilotarekin, parkeko jolasak, ezkutaketara.
- B:** EREMU TXIKIKO JOLASAK: soka-saltoan, goma-saltoan.
- D:** ADIMEN-JOLASAK: xakea, "monopoli", etxetxoekin, ordenagailuak, damak.

Neska eta mutilen artean dagoen desberdintasuna ere aipagarria da; futbola, mutilen kirol eskusiboa dela argi azaltzen da adibidez. Maila honetan, sexu bakoitzak bere kirola

barneratua du; hau da, neskenzako eskubaloi-txapelketak antolatuz gero,

hauek dira aukeratutakoak, eta horrela besteetan ere.

6. Mailako jolasak

	Futbola	Saskibal.	Eskubal.	E	Er. Zab.	F	G
Neska	0	%3,5	%17,8	%25	%42,8	%3,5	%7,1
Mutila	%37,5	%14,4	0	%27	%12,5	%2,08	%10,4

E: BESTE KIROLAK: igeriketa, eskia, frontoia, tiroa, karatea, bizikleta, tenisa,...

F: AISEALDIA: irakurketa, egotea, musika, zinea, margoketa,...

G: BORROKA JOLASAK: borrokak, asto-borrokak, makilekin,...

Eremuari dagokionez, eremu txikiko jolasak mutiletan ez dira azaltzen, eremu zabalago eta mugimendu handiagoko jolasak aukeratzen bait dituzte.

Aisealdiarekiko interesa, adina nagusitzen den neurrian handiagotuz doa bai neska bai eta mutilen artean ere.

Adimen-jolasak 8. mailan, nesken artean bakarrik azaltzen zaizkigu.

8. Mailako jolasak

	Besteak	Saskib.	Futbola	Esku B.	Adimen J.	Aisealdi	Borroka
Neska	%20,6	%3,4	0	%24,1	%20,6	%27,5	%3,4
Mutila	%26,1	%28,5	%26,1	0	0	%16,6	%2,3

Autorretratuak

Honako hau da eman zitzaien agindua marrazki hau burutzeko: «Zeure gorputz osoko marrazki bat egin ezazu. Aurretik zeure gorputza beha ezazu eta ahalik eta errealena egiten saia zaitez».

Marrazki hauetatik ondorio garbiegirik aterazea zaila gertatzen zaigu. Hala eta guztiz ere, honako hauek dira agertzerak ausartzen garenak:

-Jantzien apaingarritasuna dela eta, neska eta mutilen arteko oreka soma daiteke, alor honetan mutilek ere apaintzeko gogoaz azaltzen bait dute.

-Buru eta ilearen apaintze-lanak aldiz, nesengan askoz ere nabarmenagoak dira.

-Gorputzaren ezaugarri modura neska eta mutilen arteko desberdintasuna nabarmena dugu: nesken irudietan gerri estuak margotzen badituzte, mutilen artean gogortasuna adierazten saiatzen dira.

Ondorio orokorrak

-Rol sexualaren jabetza ohizko gizarte-ereduen arabera, nabarmena da.

-Eskolak ekintzetan nahastu, elkartu egin behar ditu neska-mutilak eta ez segregatu gaur egun bezala.

-Kirol-federazioetan ere badago zereginik egungo konpetitibitatea ez hainbeste bultzatzen batetik, eta bestetik, gorputzari eta beraren heziketari garrantzi handiagoa emanez, adin garrantzitsu hauetan batez ere.

Oharrak

1. Hemen, musika entzutea, telebista ikustea eta antzekoak sartu daitezke.

2. Hemen, xakea, ordenagailuak, damak... sar ditzakegu.